

Ordena z.
Nº orden

HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA *PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS*

Erdi Mailako Zikloak / *Ciclos de Grado Medio*

Hizkuntzalaritza / *Lingüística*

Euskera eta Literatura / *Lengua Vasca y Literatura*

NAN / DNI		Izena / Nombre	
Abizenak / Apellidos			
Sinadura / Firma			

2020ko maiatza / mayo de 2020

A. 'Irakurri testua eta erantzun galdera hauei.

“Gure etxea sutan dago”. Hitz gogor horien jabe da Greta Thunberg, klima-aldaketaren aurkako borrokaren irudi bihurtu den 16 urteko aktibista ekologikoa. Munduarekin egin dugunak biziki haserretu du, eta ez da bakarra; gazteak denona den etxea salbatzeko elkartu dira. Zergatik orain? Zerk bihurtu du ekologismoa eguneroko albiste? Biziraupena bermatzeko atzera kontuan sartu ote gara azkenik?



“Gure gurasoek *Game Of Thrones*-en amaiera eztabaidatzen dute gure planeta erretzen ari den bitartean”. Onartu beharra dago, Thunbergen hitzak zuzenak, bortitzak eta adimenez beteak daudela. Ia sinestezina dirudi 16 urteko gazte batek pentsatuak izatea. Eta gainera, asperger sindromeduna. Ala aspergerrak ematen dio halako esaldiak horren serio eta konbentziturik aireratzeko indarra eta ausardia? Helduek bezala hitz egiten du gazte honek, baina ahaztu ote dugu gazteek ere badutela heldu askok baino helduagoak izateko ahalmena?

Thunberg efektua bitxia da, eta bere arrakasta eztabaida eziznekoa. Batzuek gorrotoa diote; beste hainbat ez dira fidatzen, eta konspirazio teoriak aireratu dituzte, energia konpainiak neskaren atzean hariak mugitzen dabiltzala sinetsita. Gainerakoek, krisi klimatikoari behingoz serio heltzeko helduleku eta ikur bilakatu dute. (...)

Krisi klimatikoak duen berezitasun nabarmenena guztioi eragiten digun larrialdia dela da; berdin dio non bizi garen, zein den gure maila sozioekonomikoa, erlijioa, kontu korrontean dugun dirua edo bozkatzen duguna. Berdin dio ere Klima-aldaketan sinesten dugun edo ez.



Ikerlari eta adituek etengabe botatzen dituzten abisu eta datu beldurgarriak betetzen badira Klima-aldaketak guztioi eragingo digu. Dena den, beti bezala, lehen kaltetuak eta egoera larrienak pairatuko dituztenak eremu behartsuetako biztanleak izango dira, ez dutelako aldaketa horiei aurre egiteko azpiegitura nahikorik izango. Hala, urte gutxitan lehen errefuxiatu klimatikoak ezagutuko ditugu; lehorreek, uholdeek eta muturreko temperaturek eremu kaltetuenetako biztanleria mugitzera behartuko dute. Eta gu geu errefuxiatu klimatikoak bihurtzen bagara?

Testua: Ane Urrutikoetxea @aneurruti *GAZTEZULO* (moldatua)

1. Zerk haserre du Greta Thunberg? (0,25 p)

2. Nolakoak dira Greten hitzak? (0,25 p)

3. Zein da Thunberg efektuari buruzko elkartearen iritzia? (0,25 p)

4. Zein da krisi klimatikoaren bereiztasun nabarmena? (0,25 p)



5. Zein da testuaren idea nagusia? (0,5 p)

6. Laburbildu, zure hitzak erabiliz, testua. (6 lerro gehienez) (1 p)

7. Azaldu, zure hitzak erabiliz, esaldi hauen esanahia: "Gazteek ere badutela heldu askok baino helduagoak izateko ahalmena". (1 p)

**8. Bilatu testuan: (0,5 p)**

-Bi izen:

-Bi adjektibo:

-Izenordain bat:

-Aditz jokatu bat:

-Aditzondo bat:

9. Idatzi hurrengo hitzen sinonimoak: (1 p)

Borroka	
Bihurtu	
Eztabaida	
Beharra	
Ahalmena	

**B. IDAZLANA. Hautatu ezazu aukera hauetako bat. (5 puntu)**

B.1. Klima aldaketari buruzko testu bat idatzi behar duzu, gutxienez, 150 hitz eduki behar ditu.

Galdera hauek erantzun ditzakezu:

- Klima aldaketa gertazen ari da?
- Aldaketaren arduradunak gizakiak gara?
- Tenperaturak gora egingo du datozen urteetan?
- Glaziarrek urtu egingo dira?
- Zer egin dezake gure gizarteak?

B.2. Sare sozialei buruzko testu bat idatzi behar duzu, gutxienez, 150 hitz eduki behar ditu.

Galdera hauek erantzun ditzakezu:

- Greta Thunberg ezaguna egiten zaizu? Zer pertsonai gehiago ezagutu dituzu interneten?
- Zer sare sozial erabiltzen dituzu?
- Erabiltzaileak krudelak dira batzuetan?
- Zer da ziberaktibismoa? Erangikorra da zure ustez?

**Kontuan izan:**

- Testuaren zirriborroa egin ideiak antolatzeko.
- Sarrera egin gaia kokatzeko.
- Ideiak paragrafotan antolatu.
- Errebisatu ondo akats ortografikoak, puntuazioa eta idazkera.
- Saiatu egitura eta lexiko aberastasuna egiten

(Tarte txuri hau zirriborroa egiteko erabil dezakezu)

